

**INGURUMENEO TOKIKO FOROAREN
BILERAREN AKTA
(14.02.19)**

INGURUMEN ZINEGOTZIA
KELTSE EIGUREN AND.

INGURUMENEO TEKNIKARIA
JOSU ATEKA JN.

FOROKO IDAZKARIA
ARANTZA CABEZA AND.

INGURUMENEO AHOLKULARIA
JULEN REKONDO JN. (Ingurune)

BERTARATUAK:

NATIVIDAD MORALES AND. (Gizatiar Elkarteko ordezkarria).

KOLDO NABASKUES (Urkoa Kontsumitzaileen Elkartea).

CELIA MARAÑON AND. (Ekologistak Martxan).

CARLOS ARANA JN. (Sarekideko ordezkarria).

MAITE IBARBENGOCHEA AND. (Getxo Enpresako lehendakaria).

MIGUEL ANGEL ROGGERO JN. (Itxartu Taldeko ordezkarria).

SANTI BARRADO JN. (Bizkel Elkarteko ordezkarria).

EDUARDO FIDALGO JN. (Basozaleakeko ordezkarria).

DIMAS RAMOS JN. (Kirol elkarten ordezkarria).

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL
DE MEDIO AMBIENTE
(19.02.14)**

CONCEJALA DE MEDIO AMBIENTE
D^a. KELTSE EIGUREN

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO
D^a. ARANTZA CABEZA.

CONSULTOR MEDIOAMBIENTAL:
D. JULEN REKONDO (Ingurune)

ASISTENTES:

D^a NATIVIDAD MORALES (Representante de la Asociación Gizatiar).

D. KOLDO NABASKUES (Asociación de Consumidores Urkoa).

D^a. CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan).

D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide)

D^a MAITE IBARBENGOCHEA ((Presidenta de Getxo Enpresa).

D. MIGUEL ANGEL ROGGERO (Representante de Itxartu Taldea).

D. SANTI BARRADO (Representante de Asociación Bizkel).

D. EDUARDO FIDALGO (Representante de Basozaleak).

D. DIMAS RAMOS (Representante de Asociaciones Deportivas)

Bilerara etorri ezin dutela adierazi dute PEDRO BARRENETXEA jaunak (Eskolako Agenda 21 eta Aixerrota Institutuko irakaslea), XABIER BUENETXEA jaunak (Ingurumen arloan ospe handia duen pertsona) eta EDORTA DEL SER LORENTE jaunak (Ibilbide ekologikoak eta ingurumen arloan ospe handia duen pertsona).

Excusan su no asistencia D. PEDRO BARRENETXEA (Agenda Escolar 21 y profesor del Instituto Aixerrota), D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente) y D. EDORTA DEL SER LORENTE (Itinerarios Ecológicos y persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).

Getxon, 2014ko otsailaren 19a. Egun horren arratsaldeko zazpitan Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa bildu zen, eta goian aipatutakoak bertaratu ziren.

En Getxo, a 19 de febrero de 2014. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

GAI-ZERRENDA

1. **"Getxo udalerrian sektore estrategikoak antzemateko eta Getxoko Udalaren sustapen ekonomikorako ekintza-plana zehazteko diagnosis" lanaren**

ORDEN DEL DÍA

1. **Presentación del "Diagnóstico para la detección de los sectores estratégicos en el municipio de Getxo y concreción de un plan de acción para la promoción**

aurkezpena.

Julen Rekondo jaunak hauek aurkeztu ditu: Jose Rica, Getxolan-Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuetako teknikaria, eta Javier Puertas, LKS enpresako teknikaria eta "Getxo udalerrian sektore estrategikoak antzemateko eta Getxoko Udalaren sustapen ekonomikorako ekintza-plana zehazteko diagnosis" azterlana idatzi duen taldearen arduraduna.

Lehenengo eta behin, Jose Ricak Getxolan Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuen aurkezpena egin du. Getxolanen helburuak dira Getxoko Udalean enplegua sustatzea, enpresak sortzea eta ekonomia sustatzea.

Jose Ricaren esanetan, garapen ekonomiko iraunkorrari lagundu nahi diote, udalerriko ahalmen gizatar, ekonomiko eta sozialak oinarri hartuta, jarduera berriak sortuta eta lan merkatuan eta enpresa ehunean etengabe egokituta.

Jose Ricak adierazi du Getxoko Udalak aberastasuna eta enplegua sortzeko gaitasun handiena duten sektoreak azpimarratu nahi dituela. Sektore horiek identifikatzeko eta aberastasuna eta enplegua sustatzen laguntzeko neurriak bilatzeko, Udalak -Getxolan-Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuak-en bidez- azterlan zehatz bat egin du. Azterlanaren egilea LKS enpresa izan da.

Bere esanetan, ez da prozesu itxia, ekarpenei eta ideia proposamenei irekita dago, udalerrian jarduera ekonomikoa sortzea bultzatzeko.

Javier Puertasek, aurkezpenaren hasieran, esan du "Getxoko Udaleko 2012-2015 legegintzaldiko planaren helburu estrategikoetako bat dela Getxo herri iraunkor moduan bultzatzea, aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko gai baita. Aurreko legegintzalditik datorren ildo hori inplikaturako sektore eta eragile guztiekin lantzen da, publikoak zein pribatuak izan, eta prozesu ireki eta jarraitua da, aberasgarriak izan daitezkeen ekarpen guztiak gehitzeko. Eta gaur egun bizi dugun krisi egoeran energia albait gehien erabili behar dugu egoera hori aldatzen laguntzeko eta lanpostuak sortzeko. Horixe lortu nahi da Getxoko ekonomia eta enplegua sustatzeko esparru estrategikoak antzemateko diagnosiarekin".

económica del Ayuntamiento de Getxo".

D. Julen Rekondo presenta a Jose Rica, técnico de Getxolan-Servicios de Promoción Económica y Empleo del Ayuntamiento de Getxo, y a Javier Puertas, técnico de la empresa LKS y responsable del equipo que ha redactado el estudio "Diagnóstico para la detección de los sectores estratégicos en el municipio de Getxo y concreción de un plan de acción para la promoción económica del Ayuntamiento de Getxo".

Jose Rica, en primer lugar, hace una presentación de Getxolan, los Servicios de Promoción Económica y Empleo del Ayuntamiento de Getxo, que tienen como objetivos el fomento del empleo, la creación de empresas y la promoción económica en el municipio de Getxo.

Nuestra Misión, afirma Jose Rica, es contribuir al desarrollo económico sostenible a partir de las potencialidades humanas, económicas y sociales del municipio, mediante la creación de nueva actividad y de adaptabilidad constante en el mercado de trabajo y del tejido empresarial.

José Rica señala que el Ayuntamiento de Getxo quiere poner el acento en los sectores que presentan una mayor capacidad para generar riqueza y empleo, y para identificarlos y trabajar en medidas que contribuyen a fomentarlos, el Ayuntamiento ha realizado -a través de Getxolan-Servicios de Promoción Económica y Empleo- un estudio exhaustivo que ha sido redactado por la empresa LKS.

Señala que no es un proceso cerrado, sino abierto a aportaciones y propuestas de ideas, para potenciar la creación de actividad económica en el municipio.

Javier Puertas comienza su presentación, señalando que "el Plan de Legislatura del Ayuntamiento de Getxo 2012-2015 marca como uno de los objetivos estratégicos el impulso de Getxo como una ciudad sostenible, capaz de generar riqueza y empleo de calidad. Esta línea que viene ya de la legislatura pasada, se trabaja con todos los sectores y agentes implicados, públicos y privados, y sigue un proceso abierto y continuado para la incorporación de todas las aportaciones que puedan enriquecerlo. Y en una situación de crisis, como la que vivimos, hay que emplear todas las energías posibles para tratar de cambiar esta situación y crear puestos de trabajo. Esa es la meta que persigue cruzar el diagnóstico de detección de los ámbitos estratégicos para la promoción económica y el

Planteamendu horiekin bat etorri, proiektu hau egin da, Getxo udalerriak eta inguruak bizi dituen aldaketen aurrean modu proaktiboan jokatu ahal izateko.

Horretarako, hiru fase ezarri dira. 1. fasean (diagnosia), udalerriko lehiakortasunaren analisia egin da. 2. fasean (lehentasunak) etorkizuneko esparru estrategikoak ezarri dira, eta 3. fasean (planifikazioa) ekintza-planak proposatuko dira lehentasunezko esparru horietarako. Lantalde zehatzak sortuko dira, eta horietan inplikaturako udal arloek, toki eragileek eta identifikaturako esparruetako adituek parte hartuko dute.

Javier Puertasek Getxoko egoera ekonomikoari lotutako datu batzuk iruzkindu ditu, hala nola udalerriak ia-ia ez duela aberastasunik sortzen (BPG). Gaitasun urria du, errenta mailarik handienetakoa duen udalerria den arren. Beste datu batzuk ere eman ditu, besteak beste, 10 getxotarretatik 8k udalerritik kanpo lan egiten dutela, eta Getxoko 10 langiletik 6 udalerritik kanpo bizi direla. Gaur egun 6.500 enpresa eta 18.000 lanpostu daude, eta enpresa bakoitzean 3 lanpostu batez beste. Gaur egungo krisi ekonomikoa hasi zenetik 2.000 lanpostu galdu dira. Beste datu garrantzitsu bat da 6.500 enpresak batez ere zerbitzuen sektorekoak direla: batetik, elikadura, ostalaritza, bankuak, ile-apaindegiak, etab.; eta lanbide liberal independenteak, besteak beste medikuak, abokatuak, aholkulari fiskalak... Hiru familietatik batek etxeko lanak egiten ditu.

Azterlanaren lehenengo bi faseetatik ateratako ondorioen bidez, hiru esparru estrategiko identifikatu dira udalerriko ekonomia sustatzeko, aurretik zazpi hautatu ondoren. Hona hemen hiru esparru estrategiko horiek: ongizateari, bizitza osasuntsuari eta kirolari lotutako jarduerak berritzaileak; sormen eta kultura industriak; eta aurreko bi alderdiekin lotutako turismoa. Baina, gainera, erradiografia horrek berrikuntza indartu beharra azpimarratu du. Horretarako, udalerria bihurtu nahi da "esperientzien laborategi, eta bertan gizarte-berrikuntza, gizarte-ekonomia eta ekintzaitza sustatuko dira, 'Getxolab' izeneko esparru bat".

empleo de Getxo".

En coherencia con estos planteamientos, se ha elaborado este proyecto, que permita actuar de forma proactiva frente a los cambios que experimenta el municipio de Getxo y su entorno.

Para ello se han establecido tres fases. En la fase 1 (Diagnóstico), se ha realizado un análisis de la competitividad del municipio. En la fase 2, (Priorización) se han determinado los ámbitos estratégicos a futuro y, en la fase 3 (Planificación) se propondrán planes de acción para esos ámbitos prioritarios. Se crearán grupos de trabajo específicos en los que participarán tanto las áreas municipales implicadas, como los agentes locales y expertos de los ámbitos identificados.

Javier Puertas comenta algunos datos en relación con la situación económica de Getxo, como que el municipio apenas genera riqueza (PIB). Es muy escasa su capacidad, a pesar de que sea uno de los municipios con mayores niveles de renta. Otros datos que da, son que 8 de cada 10 getxotarras se desplazan a trabajar fuera del municipio, y 6 de cada 10 empleados que hay en Getxo vienen de fuera del municipio. En la actualidad, hay 6.500 empresas con 18.000 empleos, y un promedio de 3 empleos por cada empresa, habiendo perdido 2.000 empleos desde que ha comenzado la actual crisis económica. También otro dato importante que da, es, que las 6.500 empresas son fundamentalmente del sector servicios: por una parte, de Alimentación, Hostelería, Banca, Peluquería, etc.; y profesiones liberales independientes como médicos, abogados, asesores fiscales...Una de cada tres familias tienen empleo doméstico.

Las conclusiones que han arrojado las dos primeras fases del estudio han servido para identificar tres ámbitos estratégicos para la promoción económica del municipio, después de una preselección de siete. Estos tres ámbitos estratégicos son los siguientes: las actividades innovadoras vinculadas al bienestar, la vida saludable y el deporte; las industrias creativas y culturales; y el turismo relacionados con los dos anteriores aspectos. Pero, además, esta radiografía ha resaltado la necesidad de reforzar la innovación. Para ello, se pretende convertir al municipio en un "laboratorio de experiencias que incidirá en la innovación social, la economía social y el emprendimiento, un 'Getxolab'".

Azterlanari esker, etorkizunean lana sortzeko ahalmena daukaten hiru "zeharkako sektore" identifikatu dira, hala nola: zerbitzu profesional aurreratuak (aholkularitzak, kontsultoretzak, ingeniariartzak...), merkataritza eta ostalaritza, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

El análisis también ha localizado tres "sectores transversales" que también tienen potencial para la creación de trabajo en el futuro como son: los servicios profesionales avanzados (asesorías, consultorías, ingenierías...), el comercio y la hostelería y las tecnologías de la información y comunicación.

Aurkezpena amaitzeko, Javier Puertasek adierazi du sektore estrategikoak antzemateko prozesu honek izaera parte-hartzailea izan duela. Udaleko arlo guztien iritzia kontuan hartu da, baita eragile publiko eta pribatuena ere, tokikoak zein udalez gaindikoak; Horrez gain, kontuan hartu da pertsona ekintzaileen ikuspegia, enpresaburuena eta oposizioko alderdi politikoena, baita herritar guztiena ere. Beste erakunde batzuk ere lankidetzan aritu dira, hala nola Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU-UPV), Deustuko Unibertsitatea, Bilbao Metropoli 30 eta Innobasque. Guztira, 60 elkarrizketa egin dira diagnosa gauzatzeko eta udalerraren lehiakortasunaren analisia egiteko. Horrez gain, aurkezpen, elkarrizketa eta tailer ugari egin dira udalerrak ekonomia sustapenaren arloan duen egoera eta ikuspegia elkarbanatu eta alderatzeko.

Jabier Puertas va finalizando su presentación señalando que todo este proceso para detectar los sectores estratégicos ha tenido un carácter participativo. Se ha contado con la opinión de todas las áreas municipales; de los agentes públicos y privados, tanto locales como supramunicipales; también de la visión de personas emprendedoras, de empresarios y de los partidos políticos de la oposición, así como de la ciudadanía en general. También han colaborado organismos como la Universidad del País Vasco (EHU-UPV), la Universidad de Deusto, Bilbao Metrópoli 30 o Innobasque. En total, se han llevado a cabo 60 entrevistas para la elaboración del diagnóstico y el análisis de la competitividad del municipio. Además se han efectuado numerosas presentaciones, entrevistas y talleres para compartir y contrastar la situación y perspectivas del municipio en materia de promoción económica.

Une horretatik aurrera, hitz egiteko txanda eta galde-eskeena hasi da.

A partir de ese momento comienza el turno de palabras, preguntas y comentarios.

Maite Ibarbengoechea andreak adierazi du udalerrian bi arazo garrantzitsu daudela, hain zuzen ere, behar den besteko aparkalekuak ez egotea eta lurzorua prezioa. Javier Puertas eta Jose Rica jaunek ados daudela adierazi dute.

D^a Maite Ibarbengoechea señala que hay dos problemas importantes en el municipio y son la falta de parking de aparcamientos suficientes y el precio del suelo. Tanto D. Javier Puertas y D. Jose Rica afirman estar de acuerdo.

Bestalde, Koldo Nabaskues jaunak hiru gai planteatu ditu: 1. Etorkizuneko esparru estrategikoak hautatu eta lehentasuna ematerakoan Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundiaren politikak kontuan hartu diren; 2. Getxon lurzorua erabilgarritasunaren azterketa bat egin den; eta 3. Lehentasuna duten esparruetan sor daitekeen jardura ekonomikoa ez duela mementoz ikusten, eta gutxi gorabehera pentsatu duela udalerriko jardura ekonomikoaren ardatzak izan daitezkeela ikerketa, ezagutza, etab., hau da, "bata zuria".

Por su parte, D. Koldo Nabaskues plantea tres cuestiones: 1. Si se ha tenido en cuenta a la hora de seleccionar y priorizar los ámbitos estratégicos a futuro las políticas al respecto del Gobierno Vasco y Diputación; 2. Si se ha hecho un análisis de la disponibilidad de suelo en Getxo; y 3. Que no ve por el momento la actividad económica que se pueda generar en los ámbitos priorizados, y que más o menos había pensado que la actividad económica en el municipio podía estar centrada en la investigación, conocimiento, etc, en lo que se llama "bata blanca".

Javier Puertas jaunak erantzun dio, aurkezpenean adierazi den bezala, kontuan hartu direla udalez gaindiko erakundeen politikak. Getxon jardura ekonomikoetarako eskuragarri dagoen lurzoruari dagokionez, adierazi du ez dela analizirik egin, eta hori gerora egin behar dela, nahiz eta printzipioz asko ez egon. Eta

D. Javier Puertas le responde que si se han tenido en cuenta las políticas de instituciones supramunicipales como ya se ha indicado en la presentación. En relación a la disponibilidad de suelo en Getxo para actividades económicas, señala que no se ha hecho un análisis, que habrá que hacerlo posteriormente, aunque a

Getxon bultzatu beharreko jarduera ekonomikoaren motari dagokionez, adibidez I+G+b, beste udalerrri batzuetan badagoela eta oso hurbil Zamudioko parke teknologikoa eta unibertsitatea bera daudela.

Bestalde, Natividad Morales andreak adierazi du ez duela ulertzen zer esan nahi den bizitza osasuntsuarekin. Eta Biogurutzeta aipatu du. Bizitza kalitate handiagoari buruz hitz egiten da, medikazioa murriztuta eta beste gai batzuk sustatuta, hala nola ariketa fisikoak, erlaxazioa, etab. Eta, adibidez, aipatu du ea eskema honetan sar daitekeen igeritokietan ur gazia erabiltzea klorodun ura baino.

Jose Rica jaunak azaldu du haiek ez dutela planteatzen gaia zerbitzu bat ematearen ikuspuntutik, jarduera ekonomiko bat sortzeko aukera oinarri hartuta baino, bestelako gaiak ardatz hartuta, hala nola bizitza osasuntsua sustatzea; jarri den adibidea, nola ez, aipatzen ari diren horren barruan egongo litzateke, eta askoz kasu gehiago.

Dimas Ramos jaunak adierazi du Getxorako aipatu ohi den bizitza maila altua erlatibo dela. Izan ere, jende asko ezin da Getxon bizi etxebizitzak oso garestiak direlako. Bestalde, bere esanetan, kirol arloan jendea ez dago prest euro bakar bat emateko. Eta egon dagoen arazo bat aipatu du, denbora gutxi barru askoz handiagoa izan daitekeena, hots: Fadurako kiroldegian eta beste kirol instalazioetan lan egiten duten boluntario askok lan hori bertan behera utziko dute eta ez da ordezkorik egongo.

Javier Puertas jaunak adierazi du arrazoia duela eta horixe dela kezka nagusietako bat. Eta jendeak ezer gastatu nahi ez izateari buruz berak entzuten du jende gero eta gehiagok gimnasia joan nahi duela "sasoian jartzeko", etab.

Amaitzeko, Carlos Arana jaunak zifra ikusgarriak eman ditu Australian adibidez boluntariotzan dabilen herritarren ehunekoari buruz. Ehuneko hori oso handia da; Espainiako estatukoa, aldiz, barregarria.

2. Ingurumeneko Tokiko Foroaren proposamenak Hiri Antolamendurako Plan Orokorren bulegora bideratzeko metodologia.

Julen Rekondo jaunak adierazi du, Foroko kide batzuek azken bileran egindako oharren ostean, proposamen bat sortu dela, eta bertaratuei banatzen zaiela haien iritzia eman dezaten. Foroaren barruan lantalde bat osatu nahi da modu boluntarioan lan egiteko nahia duten

simple vista no hay mucha. Y en cuanto al tipo de actividad económica a impulsar en Getxo, por ejemplo I+D+i ya está cubierta en otros municipio, y muy cerca está el Parque Tecnológico de Zamudio y la propia Universidad.

Por su parte, D^a Natividad Morales señala que no entiende que se quiere decir con Vida Saludable. Y pone el ejemplo de Biocruces, donde se habla de una mayor calidad de vida, basada en una menor medicación y más en otras cuestiones como ejercicio físico, relajación, etc. Y, por ejemplo cita el caso de si podría entrar en ese esquema la utilización de piscinas con agua saladas en vez de cloradas.

D. Jose Rica explica que ellos no están planteando el tema desde el punto de vista de prestación de un servicio, sino desde la posibilidad de generar una actividad económica, en torno a temas, como el fomento de una vida saludable; el ejemplo que ha puesto, por supuesto que estraría dentro de lo que están hablando, y muchos casos más.

D. Dimas Ramos dice que el nivel de vida alto del que se habla que hay en Getxo es relativo, porque hay también mucha gente que no puede vivir en Getxo porque la vivienda es muy cara. Por otra parte, señala que, a nivel deportivo la gente en general no está dispuesta a dar un euro, y señala el problema que hay y que puede todavía ser mucho mayor dentro de muy poco tiempo cuando la gente voluntaria que trabaja en Fadura y en otras instalaciones deportivas lo deje y no haya recambio.

D. Javier Puertas le responde que tiene razón y que es una de las preocupaciones importantes. Y en cuanto a que la gente no quiere gastar nada, lo que oye y dice la literatura es que cada vez hay más gente dispuesta a ir al gimnasio, a "ponerse en forma", etc.

Finalmente, D. Carlos Arana da unas cifras muy espectaculares del porcentaje de población que, por ejemplo, en Australia se dedica al voluntariado, muy grande, y las irrisorias que corresponden al Estado Español.

2. Metodología para canalizar las propuestas del Foro Local de Medio Ambiente, a la Oficina del Plan General de Ordenación Urbana.

D. Julen Rekondo plantea que, tras los comentarios realizados por algunos miembros del Foro en la última reunión, ha surgido una propuesta que traslada a los asistentes, para que den su opinión. Se trata de crear un grupo de trabajo dentro del Foro, con las personas

pertsonekin, egindako azken bileretan HAPO berria egitearekin lotuta aipatu izan diren proposamenen berrikuspena egiteko. Batez ere, ingurumenarekin lotutako gaiak dira, eta horixe da, hain zuzen ere, Foroan gehien landutako bat. Proposamen horiek dokumentu batean jaso daitezke, eta Forora ekarriko dira, aintzat hartzeko.

Proposamen horri oso ondo iritzi diote, eta lantaldearen bilerarako data bat jarri da, hots, martxoaren 19a, asteazkena. Gogoeta egiteko aldi bat utziko da, Foroa osatzen duten pertsona bakoitzak aipatu bileran parte hartuko duen edo ez erabaki dezan.

3. Foroaren 2013ko azaroaren 20ko eta 2014ko urtarrilaren 15eko bilereki dagozkien aktak onestea.

Bi aktak aho batez onetsi dira.

4. Galde-eskeak.

Julen Rekondo jaunak adierazi du Forotik Bizkaiko Osasun Publikoaren Zuzendariordetzara gutun bat bidali zela eta bertan galdera batzuk egiten zirela, hala nola, ea Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak EAeko gizakiaren kontsumorako uraren fluorazio programa kenduko duen, edo ea aipatutako sail horrek osasunerako balizko arriskuaren gaineko azterlanik ezagutzen duen. Concha Castells andreak, Bizkaiko Osasun Publikoaren zuzendariordeak, gutun bat bidali du, eta horren esanetan, Ingurumeneko Tokiko Foroaren idazkia Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritzara igorri da, idazkian planteatutako gaiak zuzendaritza horren eskumenekoak baitira.

Julen Rekondo jaunak adierazi du, Ingurumen Arloak eskatuta, Concha Castells andrearekin hitz egin duela, eta esan diola Foroak laster Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen Zuzendaritzako zuzendari den Miren Dorronsoro andrearen erantzuna jasoko duela.

Julen Rekondo jaunak adierazi du Koldo Nabaskues Foroko kide jaunak posta elektronikoen bidez igorri diela berari eta Keltse Eiguren Ingurumen zinegotziari dokumentu hau: "EAEn giza kontsumorako

que se presten a trabajar voluntariamente a realizar una revisión de las diversas propuestas que han ido saliendo en las anteriores reuniones celebradas y que tienen que ver con la elaboración del nuevo PGOU. Sobre todo, son temas relacionados con el medio natural, que quizá sea uno de los que más ha trabajado el Foro. Estas propuestas se pueden plasmar en un documento, que se expondrá en el Foro, para su consideración.

Se considera idónea esta propuesta, y se señala una fecha para la reunión del grupo de trabajo, que será el miércoles día 19 de marzo, dejando un período de reflexión, para que cada persona integrante del Foro, decida su colaboración en la citada reunión..

3. Aprobación de las actas, correspondientes a las reuniones del Foro, celebradas los días 20 de noviembre de 2013 y 15 de enero de 2014.

Se aprueban las dos actas por unanimidad.

4. Ruegos y preguntas.

D. Julen Rekondo informa que en relación con la carta que se envió por parte del Foro a la Subdirección de Salud Pública de Bizkaia en la que se le hacían algunas preguntas, como si el Departamento de Salud del Gobierno Vasco va a eliminar el programa de fluoración del agua de consumo de la CAPV, o si el citado departamento conoce algún estudio de posible peligro para la salud debido a la actual floración del agua de consumo humano, entre otras, se ha recibido una carta de la Subdirectora de Salud Pública de Bizkaia, D^a Concha Castells en la que comunica que el escrito del Foro Local de Medio Ambiente ha sido remitido a la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud, por ser de su competencia las cuestiones planteadas en el mismo.

D. Julen Rekondo, también informa que, a solicitud del Área de Medio Ambiente, ha hablado con D^a Concha Castells, y le ha señalado que en breve recibirá el Foro una respuesta de D^a Miren Dorronsoro, que es la directora de Salud Pública y Adicciones del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

D. Julen Rekondo comenta que el miembro del Foro, D. Koldo Nabaskues, les ha remitido vía correo electrónico, tanto la concejala de Medio Ambiente, D^a Keltse Eiguren como a él, un documento titulado "Informe final sobre

uraren fluorazioak osasunean duen eraginaren ebaluazioari buruzko azken txostena". Txostena adituen eta teknikarien talde batek sinatu du, hain zuzen ere, erakunde hauetako kide direnak: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa eta Gasteizko Udal Urak (Amvisa), Farmazialarien Elkargoa, Haginlarien Elkargoa, etab. Txosten horrek agian zerikusia izango du Osasun Publikoaren eta Mendekotasunen zuzendariak emandako erantzunarekin.

Koldo Nabaskues jaunak hitza hartu du eta beharbada horrela izango dela planteatu du.

Dokumentu hori Forora bidal daitekeen galdetu diotenean, Koldo Nabaskues jaunak azaldu du dokumentu hori bere elkartera eta beste talde eta erakunde batzuetara bidali dutela. Dokumentua Foroko pertsonaren bati bidali ahal zaion arren, irakurtzeko interesa duelako, ez zaio iruditzen egokia denik Forora bidaltzea, eta bere ustez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Zuzendaritzak bidali arte itxaron beharko litzateke.

Josu Ateka jaunak hitza hartu du. Azterlana irakurri duela eta oso zabala dela adierazi du, 180 orrialde inguru dituela. Oso interesgarria da, baina ez du jarrera bateraturik fluorazioaren inguruan, baina bai adostasunez hartutako gomendio batzuk. Modu horretan, fluorazio politikarekin jarraituz gero, gomendatzen da gaur egungo dekretua egokitzea, herritar guztiei eta osasun arloko profesionali fluorazio politikari buruzko informazioa ematea eta konpainia hornitzaileei emandako diru-laguntza politika eta fluorazioa 30.000 biztanletik berako inguruetera hedatzeko politika berrikustea. Fluorazioa etetea erabakiko balitz, gomendatzen da dekretua indargabetzea, herritarrei eta osasun arloko profesionali etete horren arrazoiei buruzko informazioa ematea eta egoera monitorizatzea aho-hortzetako osasun adierazleetan balizko aldaketak antzemateko.

Navidad Morales andreak adierazi du ez duela ulertzen nola defendatu daitekeen fluorazioa, eta horren inguruan zenbait argudio gehitu ditu. Jarraian Julen Rekondo jaunak hitza hartu du, eta adierazi du kontua ez dela gai horri buruz eztabaidatzea, galde-erantzunen atalean horri buruzko informazioa eman dela, izaera informatibo hutsarekin; gaia edo azterlana eztabaidatu behar badira, beste une batean egingo da.

Jarraian, Josu Ateka jaunak esan du hurrengo bileran udalerrian zaborrak biltzeari lotutako 2013ko datuei buruzko informazioa emango dela.

evaluación del impacto en la salud de la fluoración del agua de consumo humano en la CAPV", que está firmado por un grupo de expertos y de técnicos pertenecientes al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, de los Consorcios de Aguas de Bilbao Bizkaia y Aguas de Vitoria (Anvisa), del Colegio de Farmacéuticos, Colegio de Dentistas, etc., que quizá tenga que ver con la respuesta de la directora de Salud Pública y Adicciones.

D. Koldo Nabaskues interviene y plantea que posiblemente sea así.

A la pregunta de si considera que ese documento se pueda enviar al Foro. D. Koldo Nabaskues explica que es un documento remitido además de a su asociación, a otras tantas agrupaciones e instituciones, por lo que considera, que, si bien lo puede enviar a alguna persona del Foro, que personalmente tenga interés en leerlo, sin embargo, hacerlo al Foro, no le parece adecuado, y cree que se debería esperar, a que lo haga la Dirección de Salud del Gobierno Vasco.

Interviene, D. Josu Ateka, que ha leído el estudio, informando brevemente que se trata de un estudio muy amplio, de cerca de 180 páginas, muy interesante, donde no hay posturas comunes en torno a la fluoración, aunque sí unas recomendaciones adoptadas por consenso. Así, para el caso de continuar con la política de fluoración se recomienda adaptar el Decreto actual, informar a la población en general y a los profesionales sanitarios sobre la política de fluoración y revisar la política de subvenciones a las compañías abastecedoras y la extensión de la fluoración a zonas menores de 30.000 habitantes. Si se decidiera suspender la fluoración se recomienda derogar el Decreto, informar a la población en general y a los profesionales sanitarios sobre las razones de la suspensión, monitorizar la situación para detectar posibles variaciones en los indicadores de salud bucodental.

D^a Natividad Morales manifiesta que no entiende como se puede defender la fluoración, añadiendo una serie de argumentaciones al respecto, interviniendo a renglón seguido D.. Julen Rekondo, que señala que no se trata de debatir sobre el asunto en cuestión, sino que es un tema informado en el apartado de Ruegos y Preguntas, meramente con carácter informativo; si se tiene que debatir el tema o el estudio, se realizará en otro momento.

A continuación toma la palabra D. Josu Ateka para decir que en la próxima reunión se informará sobre los datos relativos a 2013 en relación con la recogida de residuos en el municipio.

Bilera amaitu aurretik, Julen Rekondo jaunak gogorarazi du martxoaren 12an, asteazkenean, Foroaren bilera egingo dela, eta HAPOrakin jarraituko dela. Hala ere, bilera data horretan egingo den baieztatzeko dago Joseba Arregi zinegotzi jaunarekin.

Antes de dar por finalizada la reunión, D. Julen Rekondo recuerda que el próximo miércoles día 12 de marzo se celebrará la reunión del Foro, en la que se seguirá con el PGOU, aunque está pendiente de confirmar la celebración de la reunión en esa fcha con el concejal de Urbanismo, D. Joseba Arregi.

Getxon, 21:00etan, bilera amaitutzat eman da.

En Getxo, a las 21,00 horas se da por finalizada la reunión.